

BILBOKO UDALA ETA OSTALARITZA SEKTOREA ADOS JARRI DIRA TERRAZEN ITXITURAK EGITEKO MODUEZ

- Udalaren proposamena Bizkaiko Ostalarien Elkartarekin eta sektore horrek auzoetan dituen elkarteekin batera landu eta adostu da, eta xedetzat du Covid-19ak ekarri duen egoeraren aurrean uriko ostalaritzako terrazek duten erronkari erantzuten saiatzea.
- Espazio publikoan jar daitezkeen terraza modalitateak aztertu ondoren, era bateko eta besteko konponbideak proposatu dira, terrazaren motaren arabera eta kokatuta daudeneko espazioaren zer-nolakoaren arabera.
- Osasun-egoera zela-eta, terraza berriak ipintzeko edo lehendik baimenduta zeudenak handitzea eskatzeko ireki zen ezohiko epean, Udalak 1.093 eskaera aztertu zituen. Horietatik 746 onartu ziren.

(Bilbo, 2020ko abenduaren 21a).- **Bilboko Udalak**, bat etorritik **Bizkaiko Ostalaritza Elkartarekin eta auzoetako sektore-elkarte batzuekin eta besteekin**, terrazaren itxiturak era batera eta bestera egiteko moduak proposatu dizkie ostalaritzako establezimenduei. Hori **aparteko neurri bat da**, egungo egoera sanitarioan terrazek duten erronkari aurre egiteko.

Udalaren proposamenen helburua da zenbait kontu uztartzea:

- Alde batetik, lortu nahi da terraza-ereduak aukera eman diezaiela ostalariei eguraldi txarrari aurre egiten eta neguan ere beren ostalaritzako jarduera erosoago garatzen.
- Haizetik babestuko duen eredu bat proposatzea, baina, aldi berean, aukera emango duena osasun agintariek gomendatzen duten aire-zirkulazioa gerta dadin.
- Lortu nahi da terraza horrek bete dezala aldi baterako izateko helburua, eta aukera eman dezala espazio publikotik akatsik eragin gabe kentzeko, behin krisi sanitarioa amaitutakoan.
- Itxitura egiteko proposamenak ez dezala eragin gastu handia ostalariarentzat, baimena aldi baterako denez gero.
Hori nolabait bideratuko litzateke Bilbao Aurrera Planaren barruan osagai horiek eskuratzeko dirulaguntzak emango balira.
- Koherentziari eta irizpideari eutsi nahi zaie itxituren estetikari, materialen homogeneotasunari eta erabili beharreko koloreei dagokienez.

TERRAZAK GALTZADAN

Terraza tipologia honek dakar zurezko oholza arrastelatu bat jarri beharra, espaloien sestraren mailan. **Kasu horietan, metakrilatozko edo plastiko zurrun gardenezko zoladurak jarri ahal izango dira terrazaren barrualdean, perimetroaren lau aldeetako hirutan**, 1,60 metroko garaieran, bezeroak haizetik babesteko. Materialaren ezaugarriek,

Iodierak eta muntatzeko moduak bermatu behar dute multzoa sendoa izan dadila eta ez dadila okertu edo hautsi. Horrez gain, akaberen ertzak borobilduak edo alakatuak izan beharko dira, jendeari ebakirik ez eragiteko.

Itzalkinei dagokienez, **zurezko oholtzan ainguratu ahal izango dira** (haiek edo haien koadro euskarria), inola ere asfaltoari eragin gabe.

Itxitura mota horiek ezartzeko ez da beharko Udalaren alde aurreko baimenik; hala ere, Espazio Publikoaren Zuzendaritzak ikuskapena egin ahal izango du egiaztatzeko ea itxitura horiek behar bezala kokatu diren, eta, osterantzean, eskatu ahal izango du egokitu daitezela Udalak adierazitakoaren arabera eta ken daitezela behar bezala instalatu ez direnak.

4 METRO BAINO GEHIAGOKO ESPALOIETAN EZARRITAKO TERRAZAK

Terraza mugikor horietan, **holtzak ezarri ahal izango dira landareontzi-euskarriekin** (landareontzia barruan dutela edo ez), kontrapisua eginez. Holtzak metakrilatozkoak edo plastiko zurrun gardenezkoak izan ahalko dira, eta 160 cm garai izango dira, eta, gehienez ere, terrazaren perimetroaren lau aldeetako hirutan ezarri ahal izango dira. **Aluminiozko itzalkin arinak ere jarri ahal izango dira**, beheko aldan txapa edo harria dutela euskarri, betiere erraz kentzekoak badira. **Ezingo da ipini itzalkin ainguraturik.**

Elementu horiek egunero-egunero kendu beharko dira, eta ostalaritzako establezimenduaren barrualdean gorde beharko dira.

Holtz mota horiek, ordea, Udalaren alde aurreko baimena beharko dute, beharrezkoa baita egiaztatzea ea, ipini eta gero, segurtaturik ezarri diren eta ea segurtasun araudia betetzen ote den. **Baimen horiek ez dute baliorik izango behin krisi sanitarioa igarotakoan.**

Aukera izango da dirulaguntza eskatzeko osagai horiek jartzeko, Bilbao Aurrera Planaren barruan.

Ez dira onartuko holtzak ipintzeko eskabideak 4 metro baino gutxiagoko zabalera duten espaloietarako, inolaz ere ez.

TERRAZA EGONKOR ESTALIAK

Terraza mota hauetan, **Udalak eutsi egingo dio baimenak oso mugatuki emateko irizpideari**, zeren eta espazio publikoaren erabilera handia eragiten baitute, antz handiagoa duena emakida batekin eta hedadura handitzearekin ezen ez terrazaren kontzeptuarekin.

Bi aukera aurreikusten dira terraza egonkor hauetarako. Eskabide bakoitza banan-banan aztertuko da, kasu bakoitzean egokiena baimentzeko.

- **Atzealdeko holtz finkoa, lurzoruan ainguratua eta hegala gurpil eraisgarriak dauzkana.**

Aukera bietatik, bera da ikusmenerako aukerarik arinena, eta proposatzeko modukoa izango litzateke holtz finkoak galtzadarekin edo lorategiarekin egiten badu muga. Itxitura modu horrek aukera emango luke olanadun tetzarrak jartzeko –edo itzalkin handiak–, guztiz bilduta gera litezkeenetakoak.

- **Kontrapisudun holtzak.**

Aukera honekin eragotzi egiten da lurzoruan euskarriak jarri beharra, eta, hala, zoladura berrituta dagoen lekuetan edo zoladura oso balio handikoa den lekuetan aukera bakarra bera izango da. Sestraren peko aprobetxamendua dagoen inguruetan eta erabilera publikoko gune pribatuetan ere bai.

Nolanahi ere, aldamenak banda eraisgarriei eta/edo gurgilei instalatu beharko dira, terrazaren perimetroa osatzen duten alboak ibiltzeko libre gera daitezen, terraza itxita dagoenean.

Baliatu ahal dira, orobat, olanak edo itzalkin handiak jartzeko, aldamenetako beirazko haize-babesen kontrapisua landare-ontzi eta/edo jarlekuekin eginez eta inolako zulatzerik egin beharrik gabe. Arazoa da kontrapisuek leku handia behar dutela, eta, beraz, aukera hori oinezkoen guneetan edo espaloi oso zabaletan baino ezin dela baliatu.

OSASUN-EGOERA DELA-ETA, TERRAZA BERRIAK EDO LEHENDIK BAIMENDUTA ZEUDENAK HANDITZEA

Bilboko Udalak, koronabirusaren krisiak eragindako **ostalaritza-sektorearen kalte larria arintzearen**, Udalak ahal duen neurrian, **neurri salbuespenezko eta iragankor onetsi ditu**.

Horietako bat, **terraza berriak ipintzeko edo lehendik baimenduta zeudenak handitzea eskatzeko ezohiko epe bat ireki zuen**, maiatzaren 11tik ekainaren 26ra arte (biak barne). Epe horretan, **Bilboko Udalak 1.093 eskaera jaso zituen**. Zehazki, 329 terraza berriei buruzkoak ziren eta 764 azalera handitzeari buruzkoak.

Espazio Publikoaren Zuzendaritzak, banan-banan aztertu ondoren, **746 eskaera baimentzea erabaki zuen**, eta 347 ukatu egin ziren. Baimendutakoen artean, 529 espaloian dira (78 berri eta 451 lehendik baimenduta) eta 217 galtzadan edo aparkaleku-bandan (99 berri eta 118 lehendik baimenduta).

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO ACUERDA CON EL SECTOR HOSTELERO DISTINTAS POSIBILIDADES DE CERRAMIENTOS DE TERRAZA

- El objetivo de la propuesta del Consistorio, trabajada y consensuada con la Asociación de Hostelería de Bizkaia y las asociaciones del sector en los barrios, es tratar de dar solución al reto que presentan las terrazas de hostelería en la ciudad ante la situación generada por la Covid-19.
- Tras analizar las diferentes modalidades de terraza existentes en el espacio público, se establecen diferentes soluciones en función de su tipología y espacio en el que se encuentren ubicadas.
- En el plazo extraordinario abierto por el Ayuntamiento para solicitar ampliaciones o instalaciones de nuevas terrazas con motivo de la situación sanitaria, se estudiaron 1.093 peticiones, de las que se concedieron 746.

(Bilbao, a 21 de diciembre de 2020).- El Ayuntamiento de Bilbao, de acuerdo con la Asociación de Hostelería de Bizkaia y las distintas asociaciones sectoriales de los barrios, propone distintas posibilidades de cerramientos de terraza a los establecimientos hosteleros. Una **medida extraordinaria** ante el reto que presentan las terrazas en la situación sanitaria actual.

Las propuestas municipales pretenden conciliar una serie de cuestiones:

- Conseguir un modelo de terraza que permita a los hosteleros mitigar las inclemencias meteorológicas y desarrollar, con mayor confort, su actividad hostelera en invierno.
- Proponer un modelo que proteja del viento, pero que al mismo tiempo, permita la circulación del aire recomendada por las Autoridades Sanitarias.
- Lograr que dicha terraza cumpla el objetivo de eventualidad y pueda ser retirada, sin generar desperfectos en el espacio público, una vez finalizada la crisis sanitaria.
- Que la propuesta de cierre no suponga un gran desembolso económico para el hostelero, dado el carácter eventual de la autorización.
Un aspecto que podría ser mitigado a través de la concesión de subvenciones para la adquisición de estos elementos dentro del Plan Bilbao Aurrera.
- Mantener la coherencia y criterio en lo que se refiere a estética de cierres, homogeneidad de materiales y colores a emplear.

TERRAZAS EN CALZADA

Esta tipología de terraza consiste en la colocación de una tarima de madera enrastrelada, a nivel con la cota de acera. **En estos casos, se podrán colocar paravientos de metacrilato o plástico rígido transparente en el interior de las terrazas, en tres de sus cuatro lados**, con una altura de 1,60 metros con el objetivo de proteger a los clientes del viento. Las características del material, espesor y su montaje deben garantizar la

solidez del conjunto y evitar su flexión o rotura. Además, el acabado debe de tener los cantos redondeados o achaflanados para evitar cortes.

En lo que respecta a **las sombrillas, se establece la posibilidad de anclarlas** –bien ellas bien su cuadro de soporte– **a la tarima de madera**, sin que en ningún caso quede afectado el asfalto.

La instalación de este tipo de cierres no requerirá previa autorización municipal, si bien la inspección de la Dirección de Espacio Público podrá comprobar que estos paramentos han sido colocados adecuadamente, requiriendo su adaptación a lo indicado por el Ayuntamiento y la retirada de lo indebidamente instalado.

TERRAZAS INSTALADAS EN ACERAS SUPERIORES A 4 METROS

En estas terrazas móviles, **se podrán colocar mamparas con portajardineras** (con o sin jardinera) **para hacer de contrapeso**. Éstas podrán ser de metacrilato o plástico rígido transparente, de 160 centímetros de altura, pudiéndose colocar como máximo en tres de los cuatro lados del perímetro de la terraza. **También se podrán colocar sombrillas ligeras** de aluminio con pequeña chapa o piedra inferior, siempre que sean fácilmente retirables. **No se autorizarán sombrillas ancladas**.

Estos elementos deberán ser retirados a diario y guardados en el interior del establecimiento hostelero.

La instalación de este tipo de mamparas Sí requiere autorización municipal previa, ya que es necesario comprobar si, con su instalación, queda garantizada así como el cumplimiento de la normativa de seguridad. **Autorizaciones que quedarán sin efecto una vez superada la crisis sanitaria.**

Se podrá solicitar la subvención de estos elementos dentro del Plan Bilbao Aurrera.

En ningún caso se admitirán solicitudes para la instalación de estas mamparas en aceras inferiores a 4 metros.

TERRAZAS ESTABLES CON CUBRIMIENTO

En esta tipología de terrazas, **el Ayuntamiento mantendrá el criterio de autorizarlas con carácter restrictivo**, ya que suponen una ocupación intensiva del Espacio Público, que se acerca más a una concesión y ampliación de la superficie que al propio concepto de terraza.

Se contemplan **dos posibilidades** para este tipo de terrazas estables. Cada solicitud será analizada de forma individualizada con el fin de autorizar la más idónea en cada caso.

- **Mampara trasera fija anclada al suelo y alas con ruedas abatibles.**

De ambas, es la opción más liviana visualmente y se podría plantear cuando la mampara fija linde con calzada o con parterre. Esta tipología de cerramiento permitiría la colocación de porterías con toldos –o sombrillones– que pueden quedar totalmente recogidas.

- **Mamparas con contrapesos.**

Una opción que evita fijaciones en el suelo, con lo cual será la única alternativa en lugares de pavimento renovado o alto valor. También en los entornos en los que exista aprovechamiento bajo rasante o en las zonas privadas de uso público. En todo caso, deberán instalarse con laterales abatibles con bisagras y/o con ruedas, para liberar los lados que forman el perímetro de la terraza y puedan quedar libres al paso cuando la terraza no esté abierta.

Se podrían colocar para instalar toldos o sombrillones con contrapesos de paravientos laterales de vidrio con jardineras y/o asientos sin ningún tipo de perforación. El problema es que los contrapesos ocupan mucho espacio, por lo tanto, esta opción solo es planteable en zonas peatonales o de amplias aceras.

NUEVAS TERRAZAS O AMPLIACIONES AUTORIZADAS POR LA SITUACIÓN SANITARIA

El Ayuntamiento de Bilbao tras el cierre obligado del sector hostelero por la crisis del coronavirus, ha ido adoptando una serie de **medidas excepcionales y transitorias** con las que se ha tratado de paliar, dentro de las posibilidades del Consistorio, la situación de quebranto económico que la situación sanitaria está acarreando al sector.

Una de ellas fue la apertura de un plazo extraordinario para solicitar instalación de nuevas terrazas o ampliación de las ya autorizadas, que permaneció abierto, del 11 de mayo al 26 de junio –ambos inclusive–. En este tiempo **el Consistorio de Bilbao recibió un total de 1.093 peticiones**. En concreto, 329 se referían a nuevas terrazas y 764 a ampliaciones de superficie.

La Dirección de Espacio Público, tras analizarlas de forma individualizada, decidió autorizar 746 peticiones, mientras que 347 fueron denegadas. De las autorizadas, 529 son en acera (78 nuevas y 451 con autorización previa) y 217 en calzada o banda de aparcamiento (99 nuevas y 118 con autorización previa).